


## BEGOÑA | VECVNIA proiektu arkeologikoa



ESKU HARTZE ARKEOLOGIKO INTEGRALA EGITEKO ETA BEGOÑAKO ANDRE  
MARIAREN BASILIKAREN BALIOA NABARMENTZEKO PROIEKTUA

## 1. PROIEKTUAREN HISTORIA, INTERESA ETA JUSTIFIKAZIOA

Begoñako Andramari Eliza Bizkaiko santutegi maitatuena eta bisitatuena zen 1738an XIV. mendeko tronuratutako Ama Birjina gotikoa lurraldearen zaindari izendatu baino askoz ere lehenagotik. Egungo eliza gotiko berantiarreko tenplua ikaragarria da eta 1511n berreraikitzen hasi ziren. Eliza nabarmenki proportzioz gaindikoa zen Begoña bezalako laborarien herrixka txiki baterako, baina justifikatuta zegoen Bizkaiko Jaurerriko burdinaren merkatari, nabigatzaile eta ekoizleen bultzada ekonomiko handiarengatik. Begoña zen beraien jomuga eta erreferentzia nagusia.

Badakigu Begoñako nekazarien komunitateak eliza erromanikoa zuela 1.300. urtean Bilbo sortu baino lehen. Egiaz, Diego López de Haro jaunak Bilbo hiribildua sortu zuenean eta Santiagori eskainitako eliza eraiki zuenean, hauxe jaso zen jatorrizko agiri batean *“non pierda nada de sus terrenos et de las diezmas et de los otros derechos que a el pertenezen”*.

Eliza erromanikoa 1.162ko agiri baten bidez ezagutzen dugun herrixka baten zerbitzura egon zen: bere bitartez, Diego López de Haro jaunak premontratarren ordenari Gaztelugatxeko Donieneko monasterioa eta Begoñako nekazari morroi bat edo menpeko nekazari bat dohaintzan eman zien; aurreko hori Begoniako Garcia Munnuzok baieztatu zuen.

Oso zentzuzkoa da uste izatea (eta halaxe egiaztatu da lurraldeko eliza eta ermita batzuen indusketetan) eliza hori X. mendeko edo aurreragoko Goi Erdi Aroko eraikin baten gainean zegoela. Asturiar itxurakoa eta egikera zakarrekoa izan zitekeen, nekazarien komunitateek edo botere politiko eta erlijiosoei lotutako tokiko eliteek eraikia, VIII. mendetik penintsulako iparraldea politikoki eta elizari lotuta egituratu nahian zebiltzanak.

Gainera, aurkikuntza berezi batek antzinakotasuna biderkatzen du eta, aldi berean, Begoñak Bizkaiko nortasunaren leku gisa duen interesa eta garrantzia azpimarratzen ditu. 2003an, orain dela gutxi hil den Mikel Unzueta aldundiko arkeologoak ikusi zuen Gabriel Henao jesuita jakintsuaren XVII. mendeko idazki batean Lauroeta bideko (Loiu) haitz bat aipatzen zela, ibaia bideratzen zen puntuan hain justu ere, Axpelueta inguruan (Azpelueta edo Aspelueta = haizpea edo haitzaren azpia), eta erromatar hizki handiz idatzitako inskripzio batek zera zioen *“VECVNIENSES HOC MVNIERVNT”*, hau da: *“Hau (Iana) auzokoek –Vecuniarrek– egin/eraiki/ordaindu zuten”*. Haitz biziaren zizelkatutako inskripzio hori duela mende bat baino gehiago desagertu zen, baina zalantzarik gabe, benetan existitu zen eta I-II. mendeko erromatarren garaiko obra publiko baten inaugurazioari eskainitako epigrafea zen.

Axpeluetako galtzada erromatarrean desagertutako inskripzioak Bizkaiko mendebaldeko kostaldea kudeatzen zuten *Vecuniarrek* nortzuk ziren eta non bizi ziren deskubritzeko jakin mina sortu zuen. Orain arteko hipotesirik argiena da latinez Vecunia deitutako erromanizatutako herrixka indigena garrantzitsu bateko biztanleak zirela, eta balitekeela herrixka hori toponimoa mantendu duen Bizkaiko leku bakarrean kokatuta egotea: Artagan muinoaren bizkarrean, Erdi Arotik Begoña izenez ezagutzen duguna hain zuzen ere.

Duela bi mila urteko *vecuniarrek* (begoñatarrek) erromatar estiloko obra publikoak egiten zituzten arren, eta jendaurrean latinez hitz egiteko gai ziren arren, hiriaren izena, *Vecunia*, ez da latinezko hitza, eta horregatik, arrazoizkoa da suposatzea erromatarren garaiaurreko herri indigena zela eta gero erromanizatu izan zela, eta baliteke erromatarren garaiko *Vecunia* hiri azpian Burdinaren Bigarren Aroko kastroa edo herrixka indigena harresitua egotea; erromatarrek iritsi aurretik jendea bizi zen bertan, eta *Vecunia* deitzen zioten jada.

## 2. AUKERA ZIENTIFIKOAK

Aurreko datu horiekin, Begoñako Basilikaren lurpean eta mendebaldeko eta iparraldeko lauzen azpian aztarna arkeologiko hauek identifikatzeko, lokalizatzeko eta aztertzeko aukera zientifikoak daude:

- 1) 1.000 urtean zehar elkarren gainean jarritako zenbait hilerri. Bertan lurperatu zituzten Begoña herrixkako bizilagunak, lehendabizi landa eta hilobi eliza baten inguruan, geroago parroikia eliza baten inguruan eta XV. mende bukaeratik aurrera tenpluaren barnean, familien hilobietan; familia bakoitzaren ahalen arabera, hilobiak handiagoak edo txikiagoak izan ohi ziren. Hilobi horiek XVIII. mendean homogeneizatu egin ziren eta garai hartan eraiki zituzten kaxatu batzuk gaur egunera arte mantendu dira.
- 2) Egungo elizaren aurrekoak ziren bi elizetako zimenduak edo trazak (eta beharbada, arkitektura elementuak): hurrenez hurren VIII. mendean herrixka sortu zutenekoak eta XI. eta XII. mendeen artean parroikia sarea sortu zutenekoak, elizateen aurrekoak.
- 3) Populazio geruzen aztarnak, ziurrenik duela 2.000 urte baino gehiagotik, leku horretan egon zirenenak:
  - a. *Vecuniarren* kastro indigena edo Goi Erdi Aroko “Begoña” herrixka osatzen zuten eraikuntzetako zurezko egiturei eusteko zuloak;
  - b. *Vecunia civitas*-eko eraikinen oinarriak (bizitokiak, merkataritzakoak, politikoak eta antzezpenetakoak);
  - c. aldaketa, desegituraketa eta berrantolaketa prozesuei buruzko informazioa ere ematen duten hutsune edo eten estratigrafikoak.

Iraganeko aztarna horiek sinpleak izan arren, ikerketarako laborategi moduko bat bihurtzen dute Begoñako Eliza, eta, horri esker, azken urteetan arkeologiatik abiatuta Bizkaiko historiari buruz sortu diren eta iraganari buruz dugun ezagutza aldatu duten hipotesiak berretsi, aldatu edo zabaldu ahal izango dira: Burdin Aroaren bukaera eta erromanizazio prozesua; inperioaren desegituraketa eta baskoien protagonismoa; herrixken sorrera eta landa ingurua kristautzea; feudalizazioa eta parroikia sarea sortzea; hiriguneak sortzea eta landa inguruan izan duten eragina...

### 3. ESKU HARTZE INTEGRALAREN PLANGINTZA.

Proiektu honen helburu nagusia Begoñako Basilikaren balioa nabarmentzea da esku hartze arkeologiko eta arkitektoniko integral baten bitartez, modu horretan, Bilboko lehenengo populazio kokagunearen jatorria ezagutzeko eta, era berean, erabiltzaileentzako ezagutza kulturalerako espazioa sortzeko. Asmoa informazio zientifikoa eskuratu eta zabaltzea da, bizkaitar guztien ikuspegi mental eta emozionalean Begoñako Basilikak irudikatzen duen leku enblematikoa birbalorizatzeko, baina egungo funtzio espiritualak eta jainkotiarrak aldatu gabe.

#### 3.1. ESKU HARTZE ARKEOLOGIKOA.

Ustez aurkituko diren testigantza arkeologikoen izaera kontuan hartuta, emaitza onak lortzeko beharrezkoa da tenplu osoa eta inguruko espazio batzuetako zatiak induskatzea. Hala ere, Basilika sekula ere ez da gurtzarako itxiko, eta ikerketa lanak funtzio liturgikoekin bateragarriak izango dira, hala, eliztarrei eta bisitariei ahalik eta enbarazurik gutxien eragiteko.

Indusketa zabala egin beharra dago, ikertuko den eremuan isolatutako eta sakabanatutako zundaketak eginez gero, ezingo baita modu koherentean interpretatu lurpeko erregistro arkeologikoa, ikuspegi oso partziala izango baikenuke. Gainera, ekintza horrek segurtasunik eza sentiaraziko lioke parrokiako komunitateari; izan ere, ia-ia ziur esan dezakegu proiektua hasten denetik finkatutako planik gabe zundaketak egingo balira, nahitaez geroz eta espazio gehiago ireki beharko lirakeela aurkikuntzak ulertu eta zabaldu ahal izateko.


Horregatik, indusketak hasi baino lehen, georradarrak erabiliz prospekzio geofisikoa egitea proposatzen da, modu horretan, lurrazpiaren mapa sinplifikatua sortzeko eta estratifikazioa zehazten laguntzeko, eta hala, indusketaren betearazpen proiektua zehaztu eta profilatzen. Prospekzioak eraginak sortuko ditu Basilikaren barnealdean zein inguruan.

Teknika horren inpaktua txikia eta garrantzirik gabekoa izango da; izan ere, zunda bat sartuko da lurpean, lekuko edo zutabe estratigrafiko bat ateratzeko. Horri esker, lurraren oinarriko arroka zer sakoneratan dagoen jakin ahal izango da.

#### **Indusketa**

Basilikako 1.100 metro karratuak induskatzeari dagokionez, lau zonatan egitea programatu da, modu horretan, Begoñak bizkaitarrentzat leku espirituala izaten jarrai dezan. Lan horiek urte bukaeran adjudikatuko dira eta hurrengo hamabi hilabeteetan gauzatuko dituzte elizaren barrualdean.

Honela banatuko dira zonak:



Indusketak egin bitartean, laneko zona tenplutik isolatuko da egurrezko panelen bitartez; panel horiek serigrafiatutako oihal bat izango dute estalki gisa eta esku hartzearen ondorioz ezkutatuta geratu diren zatien irudiak ikusiko dira, hala, Basilikako bisitarien elizaren ikuspegia galdu ez dezaten. Gainera, ikerketak gurtze jardueretan eragin ez dezan, tenpluaren erabilzaileak eta ikertzaileak Basilikara leku ezberdinetatik sartuko dira; ikertzaileentzat alboko sarrerak edo sarrera nagusia irekiko dira, unean uneko lan eremuaren arabera. Gainera, fase bakoitzeko materialak pilatzeko zonak ondo isolatu eta ziurtatuta egongo dira.

Indusketa arkeologikoa egingo dituzte arkeologiako hamar profesionalak eta laguntzaileak izango dituzte baita ere. Talde horrek tenpluaren estratigrafia berreskuratuko du bitarteko mekanikoak zein eskuzkoak erabiliz, eta erregistro arkeologikoa grafikoki dokumentatuko dute argazki digitalen eta planimetriaren bidez eta tresna topografiko zehatzak erabiliz.

### Landa lanak informazio historiko bihurtzeko azterlanak

Indusketekin batera azterlanen plana eta laborategiko analisiak egingo dira, hala, landa lanetan eskuratutako erregistro arkeologikoa informazio historiko bihurtzeko.

Indusketa batean ohiko moduan egiten diren azterlanak (estratigrafia, egiturak eta berreskuratutako materialak analizatzea) azterlan espezifikoekin osatuko dira eta besteak beste arkeobotanika teknikak, paleogenetika, DNA edo isotopoen analisiak erabiliko dira; horretarako, diziplina ezberdinetako adituek lan egingo dute. Horrekin guztiarekin, Begoñako kokagunearen eta populazioaren bilakaeraren lan osoa eskuratuko dugu (ziurrenik, milurteko bat baino gehiagokoa eta ziur duela bostehun urtekoa).

### **Indusketaren eta aurkikuntzen informazioa zabaltea**

Lanen eta aurkikuntzen informazioa zabaltzeko askotariko kanal eta euskarriak erabiliko dira, baina proiektuaren helburua ez da inolaz ere izango eliza museo antzeko bat bihurtzea. Lurpeko egiturak, zangak edo hobiak berriro lurperatuko dira edo zola flotatzaile batekin estaliko dira. Modu horretan, lurpeko kriptak moduko bat sortuko da eta ikertzaileei aukera emango die bertara sartu eta emaitzak berrikusteko, teknika osagarrien aurrerapenaren arabera beharrezkoa denean. Aukera gutxi egon arren, baldin eta bisualki erakargarriak eta ikusgarriak eta jendaurrean erakusteko modukoak diren aurkikuntzak eginez gero, kriptak bisitatu ahal izateko moduan egokituko da eta kultura baliabidea bihurtuko da parrokiarako, diozesiarentzat, hiriarentzat eta lurraldearentzat, baina ez du eragingo tenpluaren erlijio eginkizun eta jardueretan.

## **3.2. ESKU HARTZE ARKITEKTONIKOA**

Esku hartze arkitektonikoan esku hartze arkeologikoa egiteko beharrezko jarduketak egingo dira eta hori bukatzean, indusketetan landutako elementuak eraberritu edo hobetuko dira. Laburbilduz, fase hauek egingo dira:

### **Aurreko azterlanak (0. fasea)**

Esku hartze arkeologikorako beharrezko aurreko azterketak eta radarren edo zulaketen bidezko prospekzio geofisikoa egingo dira, tenpluaren funtzionamenduan eragin gabe.

Segurtasun neurriak ezarriko dira eta dagozkion aurreko ekintzak gauzatuko dira (aldamioak, paneldun paramentuak eta olanak jartzea, seinaleak, edukiontzia, aldagelak, hesiak eta arrapalak). Horrez gain, kenduko ez diren elementu higigarriak babestuko dira (erretaulak, koadroak, etab.)

Zona bakoitzeko esku hartze arkeologikoa hiru hilabetean egingo da eta hondakinak behar bezala kudeatuko dira. 3. zonan, besteetan ez bezala, arretaz desmuntatu beharko da presbiterioko marmolezko zoladura.

Fase bakoitzeko esku hartze arkeologikoa bukatzen denean, eraginpeko zoladura birjartzea aurreikusi da. Hala, ikerketaren emaitzen arabera, azpiegitura arin bat gehituko da zoladura flotatzailearen azpian jartzeko eta etorkizunean lurrazpiko espaziora sartu ahal izateko. 3. fasean presbiterioa berreraiki beharko da altxatu diren marmolezko pieza berberekin.

Zoladura behin-behinean berrezartzeko esku-hartzea hilabeteko epean egingo da, eta, geroago, zoru erradiatzaile iraunkorreko sistema batez ordezkatzeko komeni den baloratuko da.

Zona bakoitzeko lanak bukatzean, azalera garbituko da eta bitarteko osagarri guztiak kenduko dira. Eliza guztia garbituko da publikoarentzat berriro ireki baino lehen.

Aurreko prospekzioen edo ikerketen emaitzen arabera, ikerketak eraikinaren barnealdean ere egingo dira, eta esku hartzeak ez du bertan eraginik sortuko; hala, jarduera biak aldi berean gauzatu ahal izango dira.